



LEGORRETA
BIZIGARRI

LGTBI+ herritarren
errealitateari buruzko
diagnostikoa

SUSTATZAILEA:



**Legorretako
Udala**

EGILEAK:

**Suder
gintza**

HIRUKI
LARROXA 

LAGUNTZAILEA:





HITZAURREA	4
SARRERA	5
BAZTERKERIARIK GABEKO ERREFERENTZIA MARKOA	7
LGTBI: siglen amalgama hutsa	8
Garrantzia duten fikzioak	9
Sexu eta genero aniztasuna integratzen duten politika publikoen alde... 11	
Pandemiaren eraginak LGTBI politiketean	13
LANDA LANA	15
Elkarrizketatuen profilak	16
ONDORIOAK	17
ESPAZIO PUBLIKOA	18
Kaleak gureak dira?	18
Kalea armairu bihurtzen denekoa	21
Alboko herrietan hobeto	23
Txikitasunaren kontrola	23
Legorretan, zertarako?	24
AISIALDIA	25
Heterofestak eta izerdi maskulinoa	26
<i>Tribade</i> gehiago eta <i>unga-unga</i> gutxiago	26
SEXILIOA	28
Denok ezagutzen dugu elkar	28
Gipuzkoako askatasuna?	29
Bizigarritasunaren paradoxa	29
LGTBlenganako ofentsibari aurre egiteko, herri bizigarriak	30
HEZKUNTZA	31
Marikoiak bai, baina transak ez	31
LANA	32
OSASUNA	33
LABURBILDUZ	35
HITZATZEA	37
BIBLIOGRAFIA	39

HITZAUURREA

Gaurdaino, gure kulturaren, ez dira kontuan hartu izan arau heterosexualetik kanpo dauden orientazio afektibo, sexual eta genero identitateak, eta botere indarrek eta gizartearen gehiengoak diskriminatu egin dituzte. Gaur egun, LGTBI+ komunitatea orain urte batzuk baino askeago bizi da. Hala ere, gizartea urruti dago berdintasunetik, oraindik ere nagusi baitira aurreiritziak, diskriminazioak eta LGTBIfobiaren zantzuak.

Legorretako Udalak, 2020ko ekainaren 28an egindako adierazpenean, LGTBI+ herritarren eskubideak urte guztian babesteko konpromiso politikoa berretsi zuen.

Legorretak orain arte ez ditu izan haienzako politika espezifikokoak, ezta zeharkakoak ere, eta hori aldatzeko asmoz abiatu zuen udalak diagnostiko hau. Lehen pausoa da, LGTBI komunitatearen eskubideak bermatuta egongo diren agertoki batera iristeko.

Legorretako LGTBI herritarren bizipenak eta egoerak ezagutzea izan da lehen helburua. Izan ere, gure herrian ere badaude zapalkuntzak arlo horretan, eta jakin nahi izan dugu haien bizitzan zer-nolako kaltea ekarri dien horrek, nolako lanketa pertsonal eta kolektiboak egin dituzten. Horrez gain, aztertu nahi izan dugu LGTBI komunitateetik kanpo dauden herritarrek nolako jokaera izan duten egoera horietan.

Azken batean, herriko mapa bat egin nahi izan dugu LGTBI komunitateko pertsonen ezaugarrien eta bizimoduaren inguruan.

Hori edukita, neurri jakin batzuk landu ditugu, eremuz eremu pixkanaka eragin eta egoerari buelta ematen hasteko.

Diagnostikoa egiteko orduan, diziplina askotako lantaldea izan dugu: LGBT+ politiketan, politika publikoetan eta teoria feministan adituak diren Sudergintza eta Hiruki Larroxa elkarteko ikerlariak, hain justu. Eskerrak eman nahi dizkiegu bi elkarte horiei, bai eta Emakunderi ere, proiektua diruz laguntzeagatik.

Azkenik, gure eskerrik beroenak proiektuan parte hartu duzen herritar guztioi: hau egiteko, zuen bizipenetan sartzen utzi diguzue, eta zuei esker atera da proiektua aurrera.

Orain, lanari ekitea dagokigu, denon artean Legorreta bizigarri bat eraikitzeko.

Zelai Amenabarro Goikoetxea

Legorretako alkatea

SARRERA



Esku artean duzun dokumentua Legorretako LGTBI+ herritarren errealitateari buruzko diagnostikoa da. Udaletik sortutako proposamena da, Legorretan herri bizigarriago bat eraikitzea eta galdera hauei erantzuna ematea helburu duena: *Zein da LGTBI pertsonen errealitatea gure herrian? Zein dira gure beharrak? Legorreta herri bizigarria al da? Gurean geratzeko apustua egiten dugu edo itota migratu egiten dugu LGTBI izateagatik?*

Dena den, galdera horiei guztiei behar bezalako erantzunak ematekotan, segur aski, hasitako lanaren jarraipen zehatza egin beharko da datozen urteetan. Horregatik, esku artean dugun diagnostiko hau Legorretako errealitatearen hasierako argazkia baino ez da.

Dokumentu honen helburua ez da bakarrik arau heterosexualari erresistentzia egiten diotenen uneko argazkia erakustea, baizik eta harago joan eta egin ditugun elkarrizketetan agertu diren proposamen, estrategia eta eskaeren amalgama ordenatzea, heteroarauan zentratzen ez diren politika publikoak diseinatzeko baliagarriak izan daitezen.

Dokumentua ez da soilik LGTBI pertsonentzat, herri osoarentzat baizik. Bizigarritasuna guztion helburua denez, hona hemen oinarrizko galdera hauek, herritarrek euren buruari egin diezazkioten:

Zein da nire ekarpena Legorreta herri bizigarriagoa izateko sexu eta genero aniztasunaren aldetik? Nola ekiditen dut nik LGTBIfobia? Zein dira LGTBI pertsonekin eraikitzen ditudan harremanak?



BAZTERKERIARIK
GABEKO
ERREFERENTZIA
MARKOA

LGTBI pertsonen inguruan hitz egiten dugunean, Brigitte Vasallok dioen moduan, komunitate batez baino gehiago, sigla jakin batzuen metaketaz hitz egiten dugu. Pertsona heterogeneo eta askotarikoez osaturiko multzo bat da, sexu disidentziako posizionamendua dela medio elementu aglutinatzaile komunak dituztenak —nahiz eta, gehienetan, sigla hauek osatzen dituzten kolektibo guztiak elkarrengandik bananduta egon—. Azken finean, elkartuta hierarkikoki funtzionatzen duen zatikatutako taldea da.

Alegia, ez da gauza bera klase ertaineko gizon homosexual zuria izatea, zeinak bikotekide egonkorra eta lanbide prestigioduna dituen, eta 65 urtetik gorako gizon homosexuala izatea, migratzailea, prekarioa, seropositiboa eta etxebizitzarik jabetzan ez duena. Biak beren joera sexualak batzen ditu, baina, kasu horretan, klase sozialak, jatorriak eta lotura afektiboaren ereduak desberdintzen ditu, beste ezaugarri askoren artean. Bataren eta bestearen zapalkuntza- eta pribilegio-egoerek definitzen dituzte beren bizi-baldintzak eta inguruarekiko duten erlazioa; baita administrazioarekin duten harremana ere. Hau da, biak komunitate beraren parte badira ere, beren errealitateak dikotomikoak dira: sarri horietako baten baldintzen inguruan egiten den sinplifikazioa —normalean pribilegiatuena— bestearen gainetik inposatzen da, eta, ondorioz, LGTBI siglen metaketa denaren inguruko iruditeria bakar eta partziala sortzen da.

Diagnostiko honetan, sarri agertuko da beste baldintza handi bat: **ez da gauza bera LGTBI pertsona bat izatea hiri/herri handi batean eta herri txiki batean.** Itolarriaren sentsazioa eta armairuan egoteko beharra etengabe agertzen baitira herri txikietan. Eta horietan, ohikoa izaten da migrazio behartua edo *sexilioa*. Kasu askotan, gainera, herrira itzultzea ez da aukera bat izaten. Hau da, migratzen duena ez da inoiz itzultzen, eta herriarekin duen lotura emozionala gatazkatsua izaten da.

Iruditeria monokromatiko horrek eragin zuzena du LGTBI pertsona baten inguruan komunitate heterozentratuak eratzen duen ideian; eragina du, era berean, berdintasun sail eta batzordeek norentzat egiten dituzten politika publikoak.

Adibidez, *Bizigarri* diagnostiko honetan etengabe agertzen da ideia hau: LGTBI pertsonak ikusarazteko ahaleginak egin ditu udalak, esaterako, ekainaren 28a antolatuta, baina, aldi berean, Legorretako egunerokoan LGTBI pertsona ikusarazteko aukera oso txikia da. Alegia, **erakundeen ahalegina egon badago, baina ez dago segurtasun baldintzarik LGTBI moduan ikusarazteko.** “*Kanpaina zehatzetatik haratago joan beharko luke, eta herriari eta haren errealitateari buruz lan egin*”. (X000)

Gutziz beharrezkoa da begirada zabaltzea, bazterketa saihestea eta siglen metaketaren edo amalgamaren benetako aniztasuna erakustea, eta, zinez, gaur egun oraindik ere, egiteke daukagun zeregina da. **Diagnostiko honen bitartez, beraz, lehen urratsa egin nahi dugu; Legorretan LGTBI pertsonak daudela eta gure herria bizigarri bilakatu behar dugula erakutsi. Horretarako, ordea, argazki bat ateratzeaz gain, neurri politiko jakin batzuk diseinatu beharko ditugu.**

GARRANTZIA DUTEN FIKZIOAK

Hasiera batean, LGTBI siglek amalgama hauskorra irudikatzen dute, eta horko pertsona asko deseroso sentiarazten dituzte; horretaz gain, komunitatearekiko duten partaidetza etengabeko gatazkan egoten da. Coll-Planasek, Bustamenteren eta Missek azaltzen duten moduan, gatazka honek aktibismoan zein egunerokotasunean topatzen du bere adierazpena (2009). Hala, egunerokotasunean, pertsona bisexual eta intersexualek adierazten dute beren kondizio sexualaren etengabeko ikusezintasuna sentitzen dutela, eta pertsona transek beren balizko komunitateko kideek baino bazterkeria sozial handiagoa nabaritzen dutela.

Aktibismoan, berriz, badira lesbianak soilik kolektibo feministetan artikulatzea nahiago dutenak eta bestelako kide homosexual edo migratutako LGTBI pertsonengandik aldentzen direnak. Migratzaileok, gainera, maiz, arrazakeriaren aurkako borrokaren aldeko apustua egiten dute LGTBI borrokaren alde baino gehiago, sentitzen baitute horren barnean borrokarako logikak arrazistak eta kolonialistak direla.

Hala ere, eta lehen aipatutako errealitateak oinarri harturik, aitortu beharra dugu praktikan Legorretako LGTBI komunitatearen aniztasuna lortzea ezinezkoa izan zaigula. Ahaleginak ahalegin, ezin izan dugu LGTBI migratzaileak edo heldurik elkarrizketatu. Ez al dira hor? Ziur gaude baietz. Baina, beharbada, oraindik ez dira sortu —edo ez ditugu sortu— haiek seguru hitz egiteko eta sentitzeko baldintzak. Eta hau izan daiteke diagnostiko honen beste ondorio nagusietako bat: **Legorretan LGTBI komunitatea ez da ikusten era askotara, eta batez ere soslai jakin batzuk dituzten herritarrek —gehienbat gizon homosexualek— hitz egin eta konta dezakete beren errealitatea.** Horrela, argazkia alboratuta geratzen da, eta begirada bakar batek zeharkatzen du. Horregatik, gizon homosexualen logika eta beharretatik haragoko politika publikoetan indarra jartzea izan beharko litzateke lehenengo erronka. Hori izango baita benetan eraldatzailea.

Diagnostiko honen beste ondorio nagusietako bat da **Legorretan LGTBI pertsonak egon badaudela baina ez dutela komunitate gisa jarduten eta ez dutela agenda propio eta lokal batekin mugimendu politiko batean egituratzeko beharrik ikusten.** Hala ere, herriko mugimendu feminista izango da salbuespena, LGTBI

subjektua izan gabe, LGTBI errealitatea eta eskaerak bere agendaren parte direla ulertzen baitu. Beraz, komunitate honen batasuna sustatzea edo erakundeek subjektutasun politiko kolektibo bat sortzen laguntzea da *Bizigarri* diagnostiko honek mahai gainean jartzen digun beste erronketako bat. Egingo al dugu?

Konplexua eta gatazkatsua izan daiteke LGTBI siglen metaketa, eta, aldi berean, eraldatzailea. Hau da, beharrezko fikzio bat da (Weeks, 1999), nor garen, zer nahi dugun eta nondik eraikitzen dugun ulertzea ahalbidetzen diguna. Eta eraikuntza hori garenaren eta izan nahi dugunaren gaineko zapalkuntzatik abiatzen da. Kokapen politiko eta gorpuztua da. Beraz, **LGTBI siglen konglomeratuak modua ematen digu erregimen heterosexualetik kanpo kokatzen denak jasaten duen zapalkuntzaren inguruan kontzientzia indibidual eta kolektiboa hartzeko**. Etiketa horren erabilpen estrategikotik borrokatu daiteke zapalkuntza (Coll-Planas, 2010), eta, aldi berean, eskaera jakinak dituen agenda bat ezarri. Politika publikoen objektu izango diren eskaerak, ez bakarrik zapalkuntza horren subjektuen bizitzak hobetu eta aldatuko dituen, baizik eta komunitate osoaren bizi-baldintzak eta haren izaera heteroarautzailea aldatuko dituen.

Kontzeptuak argitzen

Informe honetan guztian, *LGTBI* nomenklatura erabiliko dugu ikuspuntu zabal batetik, subjektu hauek kontuan hartuz¹:

- Gay, lesbiana eta bisexualak: pertsona ez-heterosexualak edota sexu bereko pertsonetikiko erakarrita sentitzen direnak. Talde horretan sartuko ditugu, halaber, kategoria horiekin erabat eroso sentitu gabe ere horien definizioarekin bat egiten dutenak (marika, bollera, *queer* homosexual).
- Trans: eredu normatiboaren arabera beren genero identitateak jaiotzez egokitutakoarekin bat egiten ez duten pertsonak. Termino hori modu zabalagoan erabiliko dugu, horren barnean transexualak, transgeneroak, ez-bitarrak eta trabestiak ere sartuz, kontuan hartu gabe genero aldaketarako ebakuntza bat izan duten edo ez.
- Intersexualak: beren anatomiak, edo, zehazki, sexu-organoak anbiguotzat klasifikatzen dituzten pertsonak, bi sexu hegemonikoekin bat egiten ez dutelako (Calvo, 2012). Genero bitartasuna zalantzan jartzen dutenak dira, agerian jartzen dutelako sexuen arteko banaketa ez dela hain argia, maskulino/femenino kategorietatik harago doan continuum biologiko bat baizik.

¹ Diagnostikoaren kontzeptualizazio zabalago hori kasu hauetatik hartu dugu: Bartzelonako LGTB herritarren errealitateen diagnostikoa, Gerard Coll-Planasek koordinatutakoa; Desirak Plazara, Gasteizko LGTBI herritarren errealitateen inguruko diagnostikoa eta ErreferenteEKIN Errenteriako LGTBI komunitatearen diagnostikoa.

Legorretako Udalaren Berdintasun Sailak bultzatu du *Bizigarri*, alkatetzaren inplikazio osoz eta LGTBI pertsonak politika publikoen hartzaile zuzen bezala kontuan hartzeko helburuarekin.

Gaur egun, emakumeen eta LGTBI pertsonen aurkako diskurtso xenofobo eta beligeranteak zein horren ondorioz egiten diren eraso zuzenak ugaritzen ari dira. Eta horrek zalantzarik gabe eragiten du batzuk eta besteak modu berean (krisi globala eta gorroto politiko orokortua ikusita) irtenbide sinplista eta populistak hartzeko errudun bihurtzea (Miralles, 2019).

Sexu eta genero ez-arautuak izateagatik bazterkeria pairatzen duten horiek guztiak kontuan hartuz, herrigintzatik premiaz planteatzen ari den erronka bat da berdintasun politiken barruko subjektuak zabaltzea. Horregatik, ezinbestekoa da herri txikietan ere LGTBI politikak sustatzea, ez soilik herria bera LGTBI pertsonentzat bizigarri bilakatzeko, baizik eta LGTBI errealitateen aurkako ofentsiba apaltzeko.

Orain arte berdintasun zerbitzuen lana hein handi batean egon da bideratuta emakume eta gizonen berdintasuna lortzea helburu duten politikak diseinatzeraz, gehienetan emakumeentzako izan diren programen bitartez. **Baina diagnostiko honek beste urrats bat egiten du, eta LGTBI fobiaren aurkako lan ildo berri bat ireki nahi du, heteroarauan oinarritutako herriaren jokabidea eraldatzeko.**


Ez da batere ohikoa herri txikietan horrelako apustuak egitea, diagnostikoak zein LGTBI politiken presentzia eta zentralitatea hiri handietako berdintasun sailen apustuak izaten baitira normalean. Herri handietan ere ohikoak bilakatu dira azken urteetan, baina ez dira ohikoak herri txikietan. Beraz, Legorretako Udalaren apustua paradigmaticoa da, eta erreferente bihur daiteke. **Herri txikietara begiratu behar baitugu, infernu handi bilaka ez daitezen.**

Genero eredu arautzailetik ihes egin beharra dago baldin eta ez badu kritikoki birpentsatzen sexu-genero sistema eta ez badu kontuan hartzen pertsonen sexu zein genero aniztasuna.

Coll-Planasek (2015) agertzen duen moduan, hiru zutabetan banatzen da sexu-genero sistema arautzailearen ereduak:

- **Sexua:** gure gorputz eta genitalen arabera eme eta arren artean bereizten gaitu, eta pertsona intersexualak kanpoan gelditzen dira.

- **Generoa** da gizon eta emakumeok bereizten gaituena sexu bakoitzari egozten zaizkion ezaugarri kulturalen arabera. Onartzen da feminitateari dagozkion ezaugarriak emakumeei dagozkiela, eta maskulinitateari dagozkionak, berriz, gizonei. Beraz, sailkapen horrek pertsona transak baztertzen ditu.
- **Desiraren orientazioak edo joera sexualak** definitzen du maskulinoaren eta femeninoaren osagarritasuna, heterosexualitatea oinarritzat hartuz eta aukera bakartzat ulertuz; horrela, gizon homosexualak, lesbianak eta pertsona bisexualak kanpoan uzten dira.



Taulan ikus daitekeen moduan, sexu-genero eredu hori murriztailea da, bitarra da, biologizista, hertsagarria, baztertzailea eta heteroarauan oinarriturikoa. Horregatik, *Bizigarri* diagnostikoan, planteamendu horietatik ihes eginez, begirada zabaldu nahi dugu eredu teoriko feminista eta askatzaile baterantz, zeinak helburu duen muga horiek gainditu eta identitate guztiak kontuan hartzea.

Gainera, dokumentu honetan aurkezten diren errealitate eta bizipenetara iristeko, ikuspegi interseksionala erabili da, hain zuzen ere ez jartzeko arreta gehiago diskriminazio forma jakin batzuetan, ez jartzeko bat besteen gaineratik. Begirada horrek modua ematen du analisi kategoria askotarikoak kontuan hartzeko, hala nola klasea, jatorria, osasuna eta adina. Beren arteko hierarkizazioa egin ordez, beren arteko elkarreragina aztertzen du.

² *Interseksionalitatea*, beste hainbaten artean, Patricial Hill Collinsek (1991) agertutako kontzeptua da. Paradigma aldaketa bat dakar, azaltzen baitu nola zapalkuntzak ezin diren batura gisara ulertu, baizik eta elkarren artean eragina duten faktore gisara.

PANDEMIAREN ERAGINAK LGTBI POLITIKETAN

Bizigarri ez dago egina edozein testuingurutan. COVID-19 pandemiaren erdian hasi genuen, eta seigarren olatuan bukatu dugu. Pandemiak denoi eragin digu, nola ez, baina LGTBI komunitatean ondorio jakinak izan ditu; ondorio bereziak. Amets Martinez de Herediak *Pandemiaren Arauak* dokumentalean azaltzen duen bezala, konfinamendu garaia armairura berriz bueltatzeko garaia izan da LGTBI pertsona askorentzat. Gazte asko, adibidez, gurasoen etxera edo herrira bueltatu dira. Ondorioz, beren identitatea eta orientazioa ezkutatzera behartuta sentitu dira, eta askatasuna galdu dute.

Familia tradizionala (aita, ama eta seme-alabak) indartu egin da pandemia garaian, eta familia hori bilakatu da zaindu behar gaituen lehenengo instituzioa. Kasu askotan, gainera, bakarra, nahiz eta familia, ere suerta daitekeen indarkeriarako eremu pribilegiatua. Herediak azaltzen duen bezala, familiako eta etxeko LGTBIfobia izan da ohikoena COVID-19 pandemiaren lehenengo fasean.

Are gehiago, pandemia aurrera joan ahala, bestelako indarkeriak ere azaleratu dira. Praktika homosexual batzuk kriminalizatu baitira (*cruising*-a adibidez), arriskutsuak izango balira bezala, estigma areagotuz.

Diagnostiko honetan, ez da izan gure helburua pandemiaren eragina neurtzea, baina jakin badakigu izan dela. Beraz, sortuko diren politika publiko berrietan gomendatzen dugu pandemiaren eragin bereziak kontuan izatea.

NEURRIA

Diseinatuko diren politika publiko berrietan pandemiaren eragina kontuan izatea.




LANDA
LANA

Diagnostikoa egin dugun hilabeteetan, Legorretako hainbat pertsonarekin bildu gara, eta elkarrizketa bidezko solasaldiak izan ditugu haiekin. Herrian bizi diren pertsonak nahiz herrian bizitzeari aspaldi utzi ziotenak izan dira. Horiekin batera, beraz, haien esperientziatik abiatuta, egoeraren diagnostikoa egin dugu, ardatz hauei arreta jarrita:

- Espazio publikoa
- Aisia
- Nahitaezko migrazioa edo *sexilia*
- Hezkuntza
- Osasuna
- Lana
- Administrazioarekiko harremana eta parte hartze politikoa

ELKARRIZKETATUEN PROFILA

PROFILA	KODEA
Emakume bisexual gaztea	X000
Emakume bisexual heldua	X001
Emakume bisexual gaztea	X002
Gizon homosexual heldua	X003
Gizon homosexual heldua	X004
Mutil trans gaztea	X005
Emakume lesbiana gaztea	X006
Emakume lesbiana gaztea	X007



ONDORIOAK

Hurrengo orrialdeetan, diagnostikoaren ondorio nagusiak ekarriko ditugu, bi helbururekin. Batetik, Legorretako errealitatearen argazki garbia egiten saiatuko gara. Bestetik, udalak LGTBI pertsonen egoera hobetzeko neurri zehatzak proposatuko ditugu. Era berean, komunitate horren estrategia positiboak eta aurre egiteko moduak erakutsi nahi ditugu; zalantzarik gabe, komunitatearen existentziaren alde borrokatzen direlako egunero.

ESPAZIO PUBLIKOA

Espazio publikoa kolektiboki bizi garen lekua da. Berdinekin eta ezezagunekin erlazionatzen garen lekua da. Gure plazak dira, erosketak egiten ditugun lekuak dira, sozializatzen garen esparrua. Beraz, komunitatea eraikitzeke leku proposena da espazio publikoa. Bertan lagunekin, familiarekin eta maitaleekin bil baikaitezke; baina, espazio publikoa oldarkorra ere izan daiteke, diskriminazio forma asko eduki ditzakeena.

Esan bezala, espazio publikoa leku pribilegiatua izan daiteke LGTBI ikusgai egiteko eta sexu-aniztasuna erakusteko, baina, era berean, lekurik egokiena ere bada isekak, fobiak eta erasoak gertatzeko.

KALEAK GUREAK DIRA?

Bizigarri-n parte hartu duten gehienek ez dute espazio publikoa arrisku handiko leku gisa definitzen. Hala ere, leku bereziki atsegina ez da ikusgaitasunerako, edo horrela sentitzen dute, behintzat.

Legorretan **ikusgaitasuna praktikatzen dutenek gehiago egiten dute jarrera politiko eta borroka-jarrera gisa, hori egiteko segurtasun baldintzak daudela sentitzen dutelako.**

Parte hartu duten gehienek, era berean, uste dute **Legorretan LGTBI pertsona gisa ikusarazteak ondorioak izan ditzakeela.** Kaleak, plazak, dendak eta abar ez dira seguruak, eta elkarrizketatutako ia pertsona guztiek jasan dute erasoren bat jendaurrean beren desira, orientazioa nahiz identitatea erakutsi dutenean.

“Nik behintzat espazio publikoan irainak jaso izan ditut. Eta espazio publiko horren barruan ere badakigu zein aktibitate egin ditzakegun eta zein ez. [...] Nik komentarioak zuzenean ez ditut entzun nire aurpegian Legorretan, baina

begiradak bai, segun zeinek. Eta ez da izan bakarrik marikoia izateagatik, ze ni ez naiz inoiz normatiboa sentitu herri mailan”. (X004)

“Ez nuke esango Legorretan espazio publikoan nire orientazioa gaizki bizi izan dudarik. Tira, kanpotik norbait etorri denean igual bai begiratu nautela edo horrela, baina bestela ez”. (X001)

“Egun batean kalean bakarrik nengoen, eta entzun nuen bazetorrela mutil kuadrilla bat, eta esan zuten: *bua hori X002 da, nik Instagramen jarraitzen dut y es una bollera...*” (X002)

Testigantzetan ikusi dugun moduan, irainak eta seinalamenduak dira ohikoenak. “Marikoia da”, edo “lesbiana da”, horiek izan dira gehien errepikatu direnak. **Nahiz eta askotan zuzenean erasoak ez jasan edo horrelakorik identifikatu ez duten, zeharka seinalamenduaren beldurra behin baino gehiagotan azaltzen da.** Besteek marikoia edo lesbiana direla deskubrituko duten beldurrarekin bizi dira elkarrizketatu ditugun gehienak. Seinalamendu horrek ondorioak ekarri ahal dizkie beste esparru batzuetan, familian edo kuadrillan esaterako.

“Pertsonalki ez dut izan arazorik nire orientazioagatik. Ez didate ez atentziorik eman ez komentariarik egin. Arazo gehiago izan ditut familiaren esparruan, batez ere, kalean esan dezaketenaren harira. Horren beldurra, zu seinalatua izateko”. (X001)

“Herriko plazan inork ez du komentariarik egingo horren inguruan, baina gero, herri txikia denez, bakoitzak bere zirkuluetan bai komentatuko duela ez dakit nor bollera da edo dena delakoa da”. (X000)

NEURRIA

LGTBIfobia zer den ohartarazi eta jakinaraziko duen kanpaina instituzional bat egitea; besteak beste, ongi etorriak ez diren jarrerak ikusaraziko ditu.

Kanpaina aurrera eramateko, kontuan izango da LGTBI herritarren iritzia, eta haien kolaborazioa sustatuko da.

Sarreran adierazi bezala, LGTBI komunitatea (siglen) fikzio bat den heinean, diskriminazioak askotarikoak izan daitezke. Alde horretatik, emakume **bisexual eta lesbianen kasuetan, espazio publikoa erabiltzen dutenean LGTBIfobia misoginiarekin gurutzatzen da**. Alde batera, bi emakumek elkar desiratzea arbuaiatua dago, eta, bestera, begirada matxistek beren desioen kontsumorako balira bezala ikusarazten dituzte emakumeok.

“Adibidez, neska batekin aritu izan naizenean, behin bi tipo gugana gerturatzea eta esatea: *begira dezakegu?*”. (X006)

“Uste dut horrelako komentario txarrak botatzen dituzten gehienak gizonezkoak direla. Azkenean, gizarteak erakusten digu mutilak izan behar dutela agintzen dutenak, *matxitoak*... Indarra daukatenak, gorputz perfektua eta ez dakit zer. Mutilak dira, nola esan... Erregeak, nagusiak. Edo behintzat hori uste dute. Nik ezagutzen ditudan eraso gehienak mutilek eginak izaten dira”. (X006)

Kasu hauetan feminismoak salbagarri moduan funtzionatzen du emakume lesbiana eta bisexual askorentzat. Hau da, desira taldean politizatzek, subjektu kolektibo eraldatzaile baten parte izateak eta berdinekin militatzeak indarra ematen die erasoei erantzuteko. Hau da, ikusgaitasuna modu askean lantzeko aukerak ematen dituzten neurrian, espazio seguru bilakatzen dira talde feministak.

“Espazio seguruak diren tokietan eta pertsona kontzientziatuak direnekin, erabat ikusgai nago. Kuadrillan pertsonaren eta konfiantzaren arabera egingen dut. Militantzia esparruetan, guztiz ikusarazten dut, inongo arazorik gabe. Beste batzuetan ere, hautu politiko bezala bisexuala naizela aipatzen dut, batez ere, lesbianismoan”. (X006)

Antsietatea, orientazioa edo identitatea ezkutatzea eta herritik migratzea izaten dira, gehienetan, erabiltzen dituzten estrategiak espazio publikoaren areriotasunari aurre egiteko.

Ez dugu intentsitate handiko erasorik identifikatu, baina, aldiz, joera orokorra hauteman dugu zenbait eraso LGTBIfobiko halakotzat ez identifikatzeko (begiradak, seinalamenduak, eta abar), horiek arazo gisa ulertu eta modu ezkorrean sumatu arren.

Indarkeria LGTBIfobikoaren mekanismo normalizatzailea etengabeko alerta da, egoera batean bizitzera derrigortzen dituena. Horren ondorioak: batetik, beren buruari autozentsura inposatzea eta, bestetik, beren orientazioa ezkutatzea era-

bakitzea. Horiek dituzte, balizko erasorik bada, beren burua babesteko mekanismoak.

“Nik armairuarekin izan dudan harremana gogorra izan da ez dudanean esan benetan zein naizen. Batez ere, transexuala zarenean, izena aldatzen duzunean, jendeak femeninoz edo maskulinoz deitzen dizulako, eta zu ez zara horrekin identifikatzen. Orduan, nik behintzat ez dut oso ondo pasatu gauza hauekin, oso zaila egin zait”. (X005)

NEURRIA

LGTBI protokoloa eratzea. Eskuragarri egongo da eraikin publikoetan, komertzioetan, tabernetan, aisia guneetan eta halako tokietan.

KALEA ARMAIRU BIHURTZEN DENEKOA

Bereizketa estrategia horrek kolektibo arautzailearekiko (heterosexuala) distantzia markatzen du, eta espazio publikoa okupatzen duenari gogorarazten dio leku horretan bera dela desberdina den bakarra, alegia, herriko arraroa edo bestelakoa.

Mekanismo hori, gainera, zigortzailea da. Alegia, sinbolikoki, LGTBI diren horiek eta ikusarazi ez direnak isilik edukitzeko balio du. Zure desira ikusgai egiten baduzu, iseka egin baitiezazukete.

“Egun batean kalean bakarrik nengoen, eta entzun nuen mutil kuadrilla bat zetorrela, eta esan zuten: *bua hori X000 da, nik Instagramen jarraitzen dut eta bollera da*. Lagunekin nagoenean hor nonbait, baina bakarrik nengoen; orduan, kriston sentsazio txarra eman zidaten”. (X000)

“Gero lagun batek esan zidan neska batekin musuka ari zela eta etorri zirela bi mutil eta txistua bota zietela. Gainera, gero jakin izan nuen mutil horietako bat nire betiko lagun bat zela, eta horrek haren inguruko pertzepzioa aldatu zidan. Ze horrelako gauzak gertatzen direnean, *es gente que conoces de toda la vida* eta ni beti bizi izan naiz Legorretan. Orduan, betidanik ezagutzen duzun jendea da, eta gero horrelakoak dira. Eta flipatzen duzu, ze kriston tristura ematen dizu. Beti ondo tratatu izan zaituen jendea, baina neskak gustuko dituzula jakitean, orduan desberdin tratatzen zaituzte”. (X000)

Norbait lagunez inguratuta badago, horrek laguntzen du erasoak ez hain modu gogorrean sumatzen. Hau da, kuadrillak babesten dituztela sentitzen dute; kolektibitateak indarkeriatik babesten duelako. Hala ere, LGTBIfobiaren aurka daudenenganako erresistentzia kolektiboa dagoela erakusten digun arren, txanponaren beste aldea da LGTBI pertsonak espazio publikoan banaka ezin egona, bakarrik egonda arriskua areagotu egiten delako.

“Ni oso urduri jarri nintzen momentuan, gero amorrua sartu zitzaidan zerbait esan ahal nielako, baina momentuan bakarrik nengoen, eta pentsatu nuen: *buu, bost pertsona dira eta jakizu zer egingo didaten!* Orduan, aurrera egin nuen, eta gero gurasoei deitu nien negarrez eta superurduri. Ze denak mutilak ziren”. (X002)

NEURRIA

Herriko LGTBI pertsonekin batera eta LGTBI komunitateari bideratuta urteko programa kultural bat diseinatzea. Hala, LGTBI pertsonak elkar ezagutzeko aukera izango dute, eta horrek bide eman lezake mugimendu bat sortzeko.

Berriz ere, autozentsura eta zurea ez den bizia izatera behartzen zaitu begirada heterozuzenak. Behin eta berriro agertzen zaigun oztupoa da huraxe. Eta, sinbolikoa denez, ez dago eraso zuzenik, ez fisikorik, ezta irainik ere; indarkeria mota bat bezala identifikatzea biziki zaila da, eta, hala, normalizatu egiten da egituraz biolentzia den mekanismoa.

Horrelakoa da bizitza, hauxe dago. Horren ondorioz, **espazio publikoaren erabile-
ra, transformatzea eta bizigarriagoa egitea ez denez estrategikoa suertatzen,
ez da urgentziaz aldatu behar den zerbait.** Hortxe dugu, hain zuzen ere, udal politikak aurrez aurre duten erronkarik handienetarikoa. Alegia, Legorretako ka-
leak, plazak eta bestelako espazio publikoak *Bizigarri* bilakatzea.

“Legorretan jende asko gelditu da armairuan; are, bizi bat garatu izan du, itxurakeriatan, berak nahi zuenaren kontrako. Igual errazagoa izan delako beraiantzat, horrela ez direlako epaituak edo erasoak izango”. (X007)

“Herrian, oro har, dauden dinamikak oso heterozentratuak dira. Familia heterosexualak hurrekin parkean eta edonon. Gainera, aita bat ikusten bazu parkean umetxoekin, seguru ama ez dagoela tabernan, baizik etxean sukaldean. Kanpainak egin beharko ziren, *egin zaitetz bollera* edo *egin zaitetz homosexual*. Hori da etorkizuna. Horretan lan egin behar da”. (X000)

Desiragarria den hori errealitate bihurtzea da helburua, desio hori erreal delako, baina Legorretan ez da erreal bihurtzen.

NEURRIA

LGTBI protokoloari lotuta, formazio eta sensibilizazio saioak eskaintzea herriko eragileei: elkarteak, tabernak, komertzioak...

ALBOKO HERRIETAN HOBETO

Beldurra bera, espazio publikoa uzteko beharra, **Legorreta armairu bezala sumatzea edo soilik herritik kanpo ikusgai izatea da espazio heteroarautu baten ondorio nagusia.**

“Niri ez zait pasa baina igual ez dudalako esan publikoki edo ez dudalako *ekarri* nire bikotekidea. Baina bikotekidea *ekarri* dutenek edo esan duten horiek ez zait iruditzen kasualitatea kanpora joan behar izatea. Eta kriston eskasa iruditzen zait herri bezala. Ni barne e! Ze iruditzen zait ardura kolektiboa dela herri gisa”. (X000)

TXIKITASUNAREN KONTROLA

Herri txikiaren pisua etengabe agertzen da. Esamesak, txutxu-mutxuak eta herriaren dibertimendu bihurtzea da elkarrizketatuek aipatzen duten etengabeko beldurra. Izan ere, presio bezala sumatzen dute, espazio publikotik harago doana eta bizitzaren dinamika pribatuetan ere integratzen dena, eta horrek bete-bete baldintzatzen die espazio publikoa nola bizi duten.

“Herriko plazan (kalean) inork ez du komentariarik egingo horren inguruan, baina gero, herri txikia denez, bakoitzak bere zirkuluetan bai komentatuko duela ez dakit nor bollera da edo dena delakoa da”. (X002)

“Espazio publikoa heterosexuala da. Eta, betikoa, festetan zaudela eta kanpoko jendea etortzen denean, ikusten baduzu tiporen bat marikoia delako susmoa duzuna, hor bai nabaritzen duzula presio moduko bat. Ze pentsatze-koa da horrelako espazio batean bi marikoi egonda nahitaez elkarrekin ligatu behar dutela, ezta? Eta, orduan, horrelakoetan nik neure buruari esan izan diot: *igual saiatu beharko zinateke mutil honekin ligatzen*. Dena oso absurdoa da, baina bai nabaritu dut hori”. (X003)

Txikitasun horren kontrolak bi norabidetan funtzionatuko du. Batetik, lehen azaldu dugun modura; hau da, orientazio eta identitate ez-normatiboa herriko txutxumtxu bihurtuko da. Baina, bestetik, esamesen joera horrek lehen mailako indarkeria LGTBIfobikoa murriztu dezake. Denek elkar ezagutzen duten heinean, denek jakingo dute bakoitzaren portaerak zehazki zein diren, eta zigor edo balio soziala jasoko dute egindakoaren arabera. Beraz, inpunitatea ezin da modu normalizatu batean praktikatu, herriaren kontrolak ez baitu ahalbidetuko.

“Legorretan erasoak xuabeagoak edo sotilagoak dira, hitzezkoak, adibidez. Ez dut uste inor pertsona LGTBI bat jotzeko kapaza denik. Herri txikia gara, eta denok ezagutzen dugu elkar, baina komentario asko daude. Halere, Ordizian eraso gehiago daudela esango nuke, are fisikoak ere”. (X007)

NEURRIA

Hurbileko udalerriekin sarean lan egiteko bideak bilatzea eta politika komunak diseinatzea, LGTBI pertsonentzat herrietan bizitzeak dakartzan onurei balioa emateko.

LEGORRETAN, ZERTARAKO?

Presioa hain handia denez, batzuetan itotze sentazioa jasanezina izaten da. **Behartutako migrazioa edo sexilioa etengabea da Legorretako LGTBI pertsonetan.** Eta kasu gehienetan, gainera, modu gatatzatsuan gertatzen da.

Alde horretatik, gazteetan aldaketa bat antzeman dugu. Haien testigantzetan ikus dezakegu ez dutela beren burua herritik kanpo irudikatzen, beren bizi-proiektua Legorretan dagoelako. Hurrengo urteetan hartuko dituzten erabakietan ikusiko dugu ea Legorreta leku atseginagoa bihurtu den LGTBI pertsonentzat edo migrazioa behartuak ikusten duten euren burua. Horixe bai erronka handia Legorretak esku artean duena.

“Orain igual pixka bat gehiago *aurreratu* dugu gizarte bezala; hala ere, ez zait iruditzen asko izan denik. Dena den, bere garaian, eta hau igual beraiek konfirmatu beharko lukete, Legorretan egongo ziren hiru kontatuta (sexu-genero disidentek). Eta ez da kasualitatea justu horiek Legorretatik alde egin izana”. (X001)

“Lehen esan bezala, Legorretan ez dut eraso fisikorik ikusi, baina hitzezkoak bai. Eta gainera bizkarretik esaten dira. Beraz, horrek tentsio arraro bat sortzen du zugan. Badakizulako zure inguruan hitz egiten dutela, baina ez duzu kontrolatzen esaten den hori”. (X002)

NEURRIA

Herri hezitzailearen prozesuan, nerabe eta gazteekin sexu-genero aniztasuna lantzea.

Espazio publikoa *Bizigarria* egiteko bestelako neurri orokor batzuk ere identifikatu ditugu:

NEURRI OROKORRAK

Harrotasun eguna ospatzea. Aldez aurretik, herritarrek parte hartzeko komunikazio kanpaina diseinatzea.

Egun berezietan banderak jartzea udaletxeko balkoian.

Herritar berrientzako harrera protokoloa diseinatzean, LGBTI komunitatea kontuan izatea.

AISSIALDIA

Espazio publikoa, askotan, aisialdiaz disfrutatzeko erabiltzen dugu, eta plazerra ematen diguten jardunetara bideratzen dugu. Halere, denok ez dugu aisialdiaz modu berean gozaten, eta, espazio publikoa bezala, arriskutsua ere izan daiteke arau heterosexualetatik kanpo dagoen horrentzat.

Oro har, **aisialdia testuinguru atsegina da diagnostikoan parte hartu duten gehientzat; baina guztiek sumatzen dute bere aisialdia era heterozentratuan**. Alegia, aisialdia goxoa da, gustukoa, baina, inolaz ere ez askea izateko eremu pribilegiatua.

Horregatik, elkarrizketetan ikus daiteke **LGBTI komunitatean mugikortasun handia dagoela**; hau da, nahi duten aisialdiaz disfrutatzeko herritik mugitzen dira. Gehienak ondoko herri handira (Ordiziara) edo hirira (Donostiara), baina beste hiri batzuekin ere badute harremana (Bilbo edo Bartzelona). Behartutako mugikortasun horrek zer ikusi handia du elkartzeko espazioen gabeziarekin, herriko kontrolarekin eta segurtasun faltarekin.

Horretan sakondu baino lehenago, aipagarria iruditu zaigun ondorio bat ekarri nahi dugu orrialde hauetara. Elkarrizketatu ditugun guztiek aisialdia festarekin, gauarekin eta jai zehatzekin identifikatzen dute. Kultura edo kirola horietatik kanpo geratzen dira. Gaueko aisialdia, alkoholaren presentzia handia eta festa da identifikatzen den aisialdi bakarra. Bestelako aisialdi bat sustatzea ere udalaren erronka da.

NEURRIA

Zinema ziklo bat egitea (Zinegoak, adibidez)

HETEROFESTAK ETA IZERDI MASKULINOA

Gaua eta jaiak heterosexualitatea indartzeko eremuak dira, hegemoniko bihurtzen dira. Ez dago inongo aukerarik beste errealitate eta desio batzuetarako. LGTBI ikusgaitasuna bikotekidearekin partekatzen bada soilik da posible. Hau da, sexu bereko norbaitekin noizean behin ligatzea ez da aukera bat. Ez behintzat modu publikoan. Musu eman diezaiokezu mutil-lagunari, baina ez taberna horretan ezagutu berri duzun mutilari. Debeku soziala ezartzen da.

Harremanen kode tradizional bat dago, heterosexualitatek harago doana, eta bikotetik ateratzen den guztia zigortzen duena. Noizbehinkakoa edo heterosexuala ez dena perbertituaren sinonimoa da. Beraz, **LGTBI biztanleriari dagokio frankismo garaian elikatutako “gaizkilearen” estigma.**

“Esango nuke herriko festak oso heterofestak direla. Ligatzea posible da festetan, nik ligatu dut, baina ezkutuan, modu klandestinoan. Bikotea izan dudanean, ordea, ez dut arazorik eduki. Baina aitortu behar dut ohitura moduan modu ezkutuan egiten genuela [...]. Ez da batere erraza Legorretan beste mutil batekin ligatzea parranda batean”. (X003)

“Festetan edo taberna giroan dena da heterosexuala. Ligatzeko orduan, ez badakizu neska bat bisexuala edo bollera dela oso zaila duzu. Ez zara saiatzen ere. Legorretan zaila da ligatzea [...]. Mutil batekin ligatzen dudanean ez da iskanbilarik sortzen, baina, neska batekin denean, beti. LGTBI pertsonen inguruan estereotipo asko daude, baina horietako bat da LGTBI jendea gaiztoak garelako. Horregatik ez naiz ausartzen, gaizki sentiarazi nautelako. Sare sozialek asko laguntzen dute aisialdiaren eremuan jende berria ezagutzeko, ze bestela...”. (X007)

NEURRIA

LGTBI protokoloaren barruan, eraso LGTBI fobikoen kasuetan aplikagarriak diren jarraibideak zehaztea.

TRIBADE GEHIAGO ETA UNGA-UNGA GUTXIAGO

Sare sozialak bilakatzen dira tresnarik estrategikoenak ligatzeko, zure orientazioa duen jende berria ezagutzeko eta bestelako harremanak sortzeko. Errealak dira bertako harremanak eta errealitatean txertatu behar da birtualitate hori. Halere, kalea da legorretarrek erabiltzen duten eremu fisikoena, eta gauak eta aisialdiak segurtasunik eza areagotzen die. Beraz, horri begira jarri behar dugu, bertan beharrezkoak baitira aldaketa sakonak.

Emakume lesbianen eta bisexualen kasuan, gaueko eraso LGBTIfobikoak mi-soginiarekin eta matxismoarekin gurutzatzen dira, eta biziki oldarkorra bihurtzen da aisialdia. Trans pertsonen kasua, ordea, ezin izan dugu modu eraginkorrean aztertu, testigantzetara ailegatzea kostatu egin zaigulako. Halere, hori ere bada, ziur gaude, transfobiaren aldagai bat.

“Festetan bertsolariak datoz, eta gauean txaranga. Txarangako neska bat etorri zitzaidan jarraika edo ligatu nahian. Jendea zegoen ea zer egin behar duen honek (nigatik), eta, oso heavya izan zen, ze nirekin ligatzen ari zen eta mundu guztia begira zegoen. Baina begira, oso heavya. *Tipa* beste taberna batera joan zen, eta handik puska batera ni eta nire kuadrillakoak hara mugitu ginen. Biak dantzan hasi ginen, eta berriz jendea begira hasi zen, oso modu nabarmenean. Ni, berriz... *nahikoa, ezin dut ezer egin*. Oso deserosoa izan zen. Bat-batean herriko gizon bat neska horrengana gerturatu zen, eta mundu guztiaren aurrean esan zion: bueno zer, *honekin joango zara?, edo nirekin zatoz?*. Orduan, *tipa* bere taldearekin joan zen. Niri jendea galdetzera ausartu zen ea zergatik ez nintzen harekin joan. Bistakoa zen zergatik ez!”. (X000)

NEURRIA

LGTBI pertsonentzako puntu koloredunak ezartzea festa garaietan, puntu moreek bezala funtzionatzen dutenak.

Aisialdia ez dago prestatua LGBTI komunitaterako, eta horrek zaildu egiten du komunitatearen beraren sentimendua. Leku bat, egun bat edo espazio bat, askea izateko, berdinen arteko aliantzak sortzeko eta ligatzeko. Hori ere eskatzen dute legorretarrek:

“Ez dago herrian bolleroen arteko sare bat. Hau da, nik planak Legorretako talde feministarekin egiten ditut, baina zurekin izaten ari naizen elkarrizketa *guaya* adibidez ezin dut askorekin izan. Horrelakoak izan ditut, baina oso gutxitan eta kanpotik datorren jendearekin”. (X000)

NEURRIA

Legorretako aisialdia antolatzean, LGBTI komunitatea kontuan izatea.

Beharrezkoa eta urgentziatzkoa da, beraz, beste aisialdi plan bat sortzea. Horretarako, herriko festak izan daitezke oso momentu aproposak, ez soilik Legorretako LGBTI pertsonentzat, baizik eta eskualde osoko beste LGBTI pertsonentzat. Herrira etorri bisitan eta eroso sentitu.

“Festetan Tribade bezalako taldeak ekarri. Ze Tribadek ez du mugitzen gizon hetero *unga-unga* bat. Horrek jendea pentsatzera eramango luke beste mundu bat ere badagoela, heterozentratua ez dena”. (X000)

SEXILIOA

Sexilioa edo nahitaezko migrazioa oso ohikoa da LGTBI pertsonen artean, edozein herri edo hiritan bezala. Baina egia da herrietan ohikoagoa dela hirietan baino.

Sexilioa unean unekoa eta estrategikoa izan daiteke —ligatzeko egiten dena, adibidez—, baina baita behin betikoa ere. Biak gertatzen dira oso naturalki Legorretan. Bigarren kasuan, gainera, badira lotura emozional oro hautsi duten parte hartzaileak, herriaren parte sentitzeari utzi diotenak. Eta hori kezagarria da oso. Dena den, badaude Legorretatik kanpo bizi baina Legorretarekin harremana dutenak ere, bere sentitzen baitute herria eta LGTBI kondizioa ikusaraziz etortzen baitira bisitan.

DENOK EZAGUTZEN DUGU ELKAR

Parte hartzaileek, oro har, **hiriko bizitza herrikoa baino askeagoa eta seguruagoa dela uste dute**. Bere bizitzan Legorretan eraiki duten irudia da, errealitatearekin bat datorrena, edo ez. Diagnostiko osoan aipatzen ari garen itotze sentazio horretan topa diezaiokegu zentzua. Hiriak ez dira, nahitaez, seguruagoak LGTBI pertsonentzat; pertzepzio subjektibo bat besterik ez da, eta hala agertzen da diagnostikoan.

Gertatzen dena da, eta parte hartzaile batzuek horrela identifikatu dute, hiri edo herri ertainek anonimotasuna gordetzeko modua ematen dutela, Legorretan ezinezkoa dena. “*Hemen denok ezagutzen dugu elkar*”. Anonimotasun horretan aukera gehiago dago norberak izan nahi duena izateko.

“Uste dut ez dagoela desberdintasun handirik hiri handi, herri ertain edo herri txiki baten artean. Baina egia da LGTB jende asko hirira doala askatasun handiagoa dagoelako. Hemen Goierriin, adibidez, ezin zara joan LGTB bandera batekin kaletik normal, ze jende batek igual jotzen zaitu. Beasainen, adibidez, batek esan zuen bisexuala zela, eta kalean zihoala jipoitu zuten horregatik. Donostian jendea lasai ikusten duzu banderarekin, eta horrelako gauzak hemen, Ordizian edo Legorretan, ba ez. Hemen Legorretan, adibidez,

jende guztia ezagutzen duzu, eta azkenean ezagutzen zaituen jende horrek zu ikusteko beldurra-edo eduki dezakezu”. (X005)

GIPUZKOAKO ASKATASUNA?

Kanpoko bizigarri gisa identifikatze hori are gehiago zehazten dute parte hartzaileek. Gehienek diote Goierri Gipuzkoako gainerako eskualdeak baino itxiago dela. Beraz, pertzepzioa herriak izan dezakeen dimentsiotik harago doa, eta horrek herriaren idiosinkrasia eta kultura erakusten digu. Oso argi ikusi dugu aisialdiaz eta sexu esporadikoaz hitz egin dugunean. Zalantzarik gabe, eskualdeko estereotipoak eta identitatea landuz gero, pertzepzio hori hausten lagun dezakegu.

NEURRIA

Herriko idiosinkrasiak bultzatzen dituen indarkeriazko dinamikak identifikatu eta lantzea.

BIZIGARRITASUNAREN PARADOXA

Etengabeko paradoxa batekin topo egin dugu aztertu ditugun *sexilio* bizipen guztietan. Gehienek Legorretatik alde egiten dute, eta hiriak leku segurutzat dituzte; hala ere, denek esaten dute Legorreta bizitzeko leku atsegina dela. Hau da, **herritik zenbat eta distantzia fisiko handiagoa izan, orduan eta lotura emozional handiagoa dute herriarekiko.**

“Nik uste dut Legorreta badela herri bizigarria LGTBI+ pertsonentzat. Izan ere, bizi izan gara hemen, eta ni eta nire bikotekidea (kanpotik etorritakoa) zein beste batzuk eroso egon gara. Inguruan beste kasu batzuk ezagutu izan ditut, eta gauza bera esango nuke”. (X003)

***Sexilioan* alde egin duten gehienak normalean herrira itzultzen dira bisitan, eta horiek ez dituzte inola ere berdin ikusten espazio publikoa zein aisialdia.** Erasoak eta begiradak ez dira desagertzen, baina indarkeriaren pertzepzioa lausotzen da, eta herria lasaitasunez bizi da.

NEURRIA

Sexiliatu diren horiengana hurbiltzea eta zergatiak ezagutzea, ondoren neurri zehatzak har daitezkeen aztertzeke.

Alokairuko dirulaguntzetan LGTBI komunitatea txertatzea.

LGTBI-ENGANAKO OFENTSIBARI AURRE EGITEKO, HERRI BIZIGARRIAK

LGTBIfobia betean murgilduta gaude, eta azken hilabeteetan LGTBI pertsonen aurkako indarkeria goraka doala ikusten ari gara. Testuinguru horretan, indartu egin da herriak oro har leku bizigarriagoak direlako pertzepzioa, baita LGTBI pertsonen artean ere. Herrira bueltatzeko edo herrian bizitzeko apustuak egiten ari dira nonahi.

Hirietako bizimodu garestiagatik, herriek naturarekin duten harremanagatik eta pandemiaren egoeragatik, gora doa herrietako populazioa. Exodo hori nola gauzatuko den izugarrizko erronka da. Herrira etortzen diren LGTBI berrientzat ere herria bizigarri egiteko ardura dute instituzioek. Migrazio prozesu horretan, familia baztertzailerik eta arautzaileen ereduak indartuko dira politika publiko ez-heteroarautuak sortzen baditugu.

“Bai egia da etiketa hori beti eramango duzula, eta horrekin bizitzen ikasi behar duzu, eta ohitu egin behar duzu. Baina, bueno, bizigarria bada ikusita zer gertatzen den beste leku batzuetan. Beraz, esango nuke ez gaudela hain leku txarrean”. (X003)

Hezkuntza, osasuna eta lana dira hurrengo orrialdeetan landuko ditugun aldagaiak. Hiruretan, eskumen gehienak Eusko Jaurlaritzaren esku daude; beraz, udalak ezin ditu aurrera eraman partaideek planteatzen dituzten behar gehienak. Horrek ez du esan nahi, ordea, guztiz beharrezkoak ez direnik aldaketa horiek. Beharrezkoak eta desiragarriak dira LGTBI pertsonen kalitatezko bizitza izateko.

Bizigarri diagnostikoan parte hartu dutenen eskarrietan, behin baino gehiagotan azaldu dira ginekologia zerbitzu ez-heterozentratua, heziketa sexuala bigarren hezkuntzan eta transfobia ekiditeko protokoloen beharra. Alde horretatik, ezinbestekoa da udalak konpromiso argia hartzea aldarrikapen horiek erakundeen arteko koordinazio guneetara eramateko.

NEURRIA

Tokiko garapenerako politikak landuko diren erakundeen arteko koordinazio-guneetan, LGTBI herritarren baldintza sozioekonomikoak hobetzeko neurriak aintzat hartzea sustatuko du Legorretako Udalak.

HEZKUNTZA

MARIKOIAK BAI, BAINA TRANSAK EZ

Hezkuntza formalaren etapa guztietan etengabekoak izaten dira heterossexualitateari egiten zaizkion aipamenak, eta nerabezeroan areagotu egiten dira. Errealitate horren ondorioz, gazte askok zalantzan jartzen dute beren sexu joera, edo askotan, babes mekanismo gisa, ezkutatu egiten dute.

Herritik kanpo egiten dute hezkuntza formalaren etapa handi bat legorretarrek; beraz, ezinezkoa da analisi osatu bat egitea. Eskolako klaustroarekin bildu eta gero, bi ondorio nagusi antzeman ditugu:

1_Jarrera baikorra eta proaktiboa dute aniztasun sexuala lantzeko.

2_Udalarekiko hartu-emana normalizatua eta gertukoa da, eta, arazoren bat izatekotan, haren laguntza ezinbestekoa suertatzen zaie.

Aurrerapauso asko izan dira hezkuntza eremuan, baina oraindik “hezkuntza sexualaren gaia curriculumaren barruan egoteko beharra dago” (X003) eta *bullying* LGTBfobikoa gaur egungo errealitate bat da oraindik.

“Behin norbaitek *marikita* deitu ninduen eskolan, eta amak tutoreari deitu zion. Tutorearen erantzuna izan zen hori gure artean konpontzeko gauza bat zela”. (X001)

“Ikaskideekin arazoak ditut. Komentario txar asko entzun ditut, ez soilik nire inguruko komentarioak, baizik eta orokorrean hitz-erdika eta horrelakoak. Beti egoten da graziosoren bat”. (X005)

Alde horretatik, trans errealitatea ikusezintasun handiz islatzen da eskolan. Orientazioarekin konpromiso handia dago, baina protokoloek oraindik ez dakarte transexualitatea nola landu behar den. Beraz, hortxe badago beste erronka bat.

NEURRIA

Transexualitatearen gaia landu eskolan, guraso eta irakasleentzako formazio saioen bidez.

Aisialdian ere ikusi dugunez, Legorretako errealitate afektiboa oso heterossexuala da oraindik, eta gehienbat familia nuklearrak dira seme-alabak eskolara eramaten dituztenak. Guraso gutxi ateratzen dira normatik.

Estigmak apurtzeko eta seme-alabak aniztasunean hezteko gurasoekin zuzenean lan egitea da lehenengo pausoa; horrek ekarriko du neurriko aldaketa.

“Gaur ikusten edo ezagutzen ditudan guraso gazteak ere ez daude prestatuta. Gainera, ez dute horretarako beharrik ikusten, zerbait gertatu arte. Ikusi ditut kasu batzuk zeinetan ume batzuk gerora homosexualak diren eta gurasoek ez dioten horri aurrea hartu. Soilik alarma sortzen denean”. (X003)

NEURRIA

Guraso eskolan sexu aniztasuna lantzea

LANA

Lanak pertsonen bizitzaren zati handi bat hartzen du. Alor horretan, asko kostatu zaigu LGTBlenganako indarkeriak identifikatzea, ez existitzen ez direlako, baizik eta ikusezintasunak eta armairuak oso zorrotz jarduten dutelako.

Lana galtzeko beldurraren ondorioz, askok nahiago dute beren desiraren orientazioa edo identitate sexuala ezkutatu. Beraz, **lan arloak armairu handi baten modura funtzionatzen du.**

Lanean ohikoak dira komentario homofoboak, eta, horregatik, ikusgaitasunerako kontrako espazio bihurtzen da enplegua. Batzuek erantzun egiten dute, eta beste batzuek ez; lana nolakoa (kontratu mota, behin-behinekotasuna, eta abar), halakoa izango da erantzuna.

“Ni Legorretako jatetxe batean zerbitzari ibilitakoa naiz. Eta ez dut arazorik izan, baina batzuetan igual bi neska [bezero] etortzen ziren, eta bertako [jattetxearen] nagusiak esaten zuen: *ze ari dira hauek? Ez dira bikote izango, ezta?*. Eta ni: *jakina hala direla! Ez duzu ikusten muxukatzen ari direla!*. Beste batean, mutil bat [bezeroa] etorri zen azkazalak margotuta, eta lankide batek ere aipamen bat egin zuen: *hau ze ari da azkazalak margotuta?*. Hau da, horrelakoak Legorretan pasatzen dira, bai!” (X001)

NEURRIA

Kontratazio publikoetan, kasuan kasu, Legorretako Udalak aztertu egingo luke klausula bereziak jasotzea pertsona transexualen kontratazioa lehenesteko.

OSASUNA

Osasunaren aldagaiari dagokionez, ezin izan dugu informazio nahikoa bildu LGTBI herritarrek osasuna nola hautematen duten modu orokorrean aztertzeko. Legorretan Osakidetzaren kontsultategi bat dago, eta bertan lehen mailako arreta zerbitzuak ematen dituzte. Alde horretatik, elkarrizketatuek ez dute pertzepzio ezkorrik ez baikorrik. Izan ere, inguruko herri handietako osasun etxeetara joaten dira.

Dena den, garrantzitsua da azpimarratzea LGTBI pertsonak, oro har, desberdintasun esanguratsuak pairatzen dituztela beren bizitzetan eragin zuzena duten osasun arloko gorabeheretan.

Izan ere, LGTBI pertsonak osasun zerbitzuetan estigma eta diskriminazioa jasaten dute aldiro, eta horrek desberdintasunak sorrarazten ditu osasun arretaren kalitatean eta eskuragarritasunean.

Hainbat osasun erakunderen arabera —hala nola Munduko Osasun Erakunde—, depresioa, antsietatea eta substantzien abusua 1,5 handiagoak dira LGTBI pertsonetan, batez ere emakume lesbianen, bisexualen eta transexualen artean.

Baina LGTBI pertsonentzat ohiko arazoa da osasun profesional askok uste dutena: LGTBI pertsonen osasun premiak heterosexuak berdinak direla eta gehienbat sexu osasunarekin lotuta daudela. Ondorioz, estigmatizazioa areagotu egiten zaie.

LGTBI pertsonak osasun zerbitzuetan duten beste oztopo handiak identitatearekin du lotura; hau da, LGTBI pertsona askok ez dute osasun langileen aurrean beren desiraren orientazioa edota genero identitatea aitortzen, diskriminazioa jasango dutelakoan.

Gainera, frogatu den bezala, COVID-19aren pandemian asko areagotu da LGTBI herritarren zaurgarritasuna. Immunitate sistema konprometituekin bizi diren pertsonak —GIBdun edo hiesdun batzuk barne— osasun arrisku handiagoa izan baitute COVID-19arekin.

Halaber, osasun zerbitzuetan lehenetsua galdu dute, osasun sistemaren gainkarga dela eta. Ondorioz, LGTBI pertsonak beharrezko dituzten hainbat tratamendu eten egin dira; GIBaren tratamendua eta probak, trans pertsonentzako hormona tratamendua, emakume lesbianentzako berariazko zerbitzu ginekologikoak, eta abar.

Horregatik da hain beharrezkoa Legorretako Osakidetzako kontsultategia eta bertako osasun-langileak errealitate horietaz jabetzea eta LGTB herritarrak zerbitzu espezifikoagoetara egoki bideratzea.



LABURBILDUZ

la ezinezkoa da Legorretako LGTBI errealitate guztiak txosten bakar batean jasotzea, hainbat faktore direla medio; hala ere, diagnostiko honetan ikusi dugunez, LGTBI herritarren bizitzak hobetzeko urratsak egiten jarraitu behar dugu oraindik ere. Dokumentu hau lehen pausoa da. Oso pauso garrantzitsua. Udalerrri txiki batean egindako lehen LGTBI diagnostikoa da, eta, Legorreta LGTBI jendearentzat bizigarria izatea ez ezik, antzeko ezaugarriak dituzten udalerrientzat erreferente izatea du helburu.

Legorreta LGTBI pertsonentzako leku segurua izatea ez da soilik erakundeen erantzukizuna, udalerrri osoak inplikatu behar du, baita heterosexualek ere, ez baita desira kontua, eskubide eta demokrazia kontua baizik.

Ondorio asko atera ditugu. Tamalez, **espazio publikoa** ez da leku atsegina ikusgarritasunerako. Badugu lana! Tabernak sozializaziorako eta festarako esparru baitira, horietan ere, nola ez, LGTBI herritarrek diskriminazioa eta tipologia askotako erasoak jasaten dituzte. **Aisialdi** segurua eraikitzeke beharra dugu. LGTBI jende askok herritik alde egitera behartuta ikusten du bere burua aske izateko. Herrimina baino gehiago, **sexilioa** ezabatzea da Legorretan behar duguna.

Beste erronka handi bat ere badago: **hezkuntzan** askatasun sexuala lantzea eta **lanean** diskriminazioa saihestea. Gainera, berebizikoa izango da Legorretako Osakidetzako kontsultategia eta bertako osasun-langileak dauden errealitateez jabetzea eta LGTBI herritarrek zerbitzu espezifikogoetara egoki bideratzea.

Erronka asko daude, eta erronka horiei heltzeko konpromiso irmoa behar da. Legorretako Udalak LGTBI pertsonekin duen konpromisoa zalantzarik gabeko konpromisoa da; eta, herritarrekin batera, Legorreta *Bizigarria* lortuko dugu.



HITZATZEA

Etorkizunetik gatoz

Legorreta erreferente bihurtu da Euskal Herrian; urte dezente pasatu dira herriarrek, eragileek eta erakundeek ariketa sakon bat egin zutenetik. Indar bat egin zuten bizigarritasunaren aldeko apustu sendoa egiteko, eta, bide horretan, arau nagusi bat ezarri zuten: **Legorretan ez da iraintzen**. Bitxia norma, emaitza bikainak eman dituen arren.

Kontzientzia handiena herriko eskola publikoan dute. Bertan, pasilloetan zein patioan, edonork *marikoi* deitzen badio beste norbaiti, irainen aurkako super-protokoloa jartzen dute martxan; ikasgelan badaude, irakasleak *entzun* egiten du iraina; ez da isiltzen, eta ez du esaten “haurren kontuak dira” edo “normala da”. Erreakzionatu egiten du, *zerbait* egin. Patioan gertatzen bada, eskolakideek (lagunek) erantzun egiten dute; ez dute uzten *indartsuenek* irabazten. Iraina sekretuan botatzen bada, eskolako edozein txokotan, inor gertu ez dagoenean, alegia, biktimak *badaki* zer egin, inguruko babesa baitu: badaki arazoa iseka egiten duenarena dela, eta ez berea. Badaki laguntza eskatzen.

Legorretan parrandan dantzan ari direnean, bi emakume musukatzen ikusten dituztenean, ez dute txisturik botatzen; ez herriko plazan, ez gaztetxean, ezta inongo taberna eta elkartetan ere; eta, hori gertatzen bada, kaput Legorreta bizigarria. Eta, jazarri direnak taldean badaude, mutur joka hasi nahi badute, herriarrek *erantzun* egingo diete, oldartutakoek espero ez bezala: Legorretan ez baita irainik onartzen, sekulako kontzientzia dutelako.

Urteetako lanketaren ondorioz, Legorretako LGTBlek ez dute beldurrik espazio publikoan egoteko; iraganean, aldiz, kalea ez zen lekurik aproposena ikusgai-tasunerako. Orain, haien iritzia da herri-mailan eta kalean LGBTI pertsona modura ikusarazteak ez duela ondorio larririk. Are gehiago: gaur egun herrian bizi dira; batzuek bikotea dute (edo hirukotea, edo laukotea, edo...); beste batzuk bakarrik bizi dira, edo lagunekin. Euren artean, gainera, sareak indartu dituzte. Jada ez dago sexiliorik, ez baita horretarako beharrik.

LGTBI pertsonen azken diagnostikoa egin zenean, zortzi pertsonak besterik ez zuten parte hartu ikerketan. Gaur egun gehiago dira beldurra alboratu dutenak. Tartean, migranteak eta helduak: maitasuna galtzearen panikoa gainditu dute.

Hala eta guztiz ere, etorkizunean ere badaude problema larriak; langabezia, etxebizitzaren prezio jasangaitzak, arrazismoa, sexismoa eta beste. Ez da ikerketarik arazo guztiak konponduko dituenik. Hala ere, posible da gaur sufritzen ari direnek laguntzaren bat izateko aukerak handitzea. Hori da, nire ustez, lan honen guztiaren helburua: galduta daudenek, inor gertu ez dutenek, laguntza eskatzeko erraztasunak izatea.

Bihotz-bihotzez iraganetik,

Iñaki Esnal Altuna

BIBLIOGRAFIA

Bartzelonako Udala (2009), *Diagnóstico de las realidades de la población LGTB de Barcelona*.

Coll-Planas, G.; Bustamente, G. y Misse, M. (2009), *Transitant per les fronteres del gènere. Estratègies, trajectòries i apotacions de joven trans, lesbianes i gais*, Col·lecció Estudis, 25. zk.

Errenteriako Udala (2019), *ErreferenteEkin. Errenteriako LGTBi biztanleriaren errealitateen diagnostikoa*.

Gasteizko Udala (2018), *Desirak plazara. Diagnóstico sobre las realidades de la población LGTBI de Vitoria-Gasteiz*.

Hill Collins, P. (1991), *Black Feminist Thought: Knowledge, consciousness and de politics of empowerment*, Routledge.

Martinez, Y. (2011), *Sexilios: Hacia una nueva poética de la erótica caribeña*, Salamancako Unibertsitatea.





SUSTATZAILEA:



**Legorretako
Udala**

EGILEAK:

**Suder
gintza**

HIRUKI
LARROXA

LAGUNTZAILEA:



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN ERABILIA ETORZINDAKA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER